


BERRIGARA

51. zenbakia

Jardun elkartea, Bergara

1992, otsailak 7


**Udaletxea
laister
berriztuko
da**



**Pol-Polek
50. urtemuga
ospatuko du**



**Kale
garbitzaileak
esku
pribatuetara**



**J.M. Zezeaga
Finalera
bidean**




ALDASORO

Orain beherapenak:

oinetako, poltsa, txaketa eta kazadoretan.

• BERGARA Tfnoa: 76 01 18 • OÑATI Tfnao; 78 07 55 • LEGAZPI Tfnoa: 73 10 22



Barrenkale, 3 • BERGARA • telf.: 943-765919

**Pintxoak, eguneroko menua eta
karta bereziak ditugu
Betiko eta oraingo sukaldaritza**

ARGAZKI

**18 urtean
zure zerbitzuan**

Barrenkale 16 Tfnoa: 76 20 66



GALDE DEBALDE

GURUTZE ARANA

Aurreko GALDE DEBALDEko erantzun zuzena hau zen: **25 lagun (errege, algeru e.a.ak kontatuz), 12 animalia eta 15 txori.** Baina erantzun zuzenik egon ez denez, gehien hurbildu denari eman diogu saria.

**Gurutze Aranak idabazi du ZUBIKUA
JANTZIDENAKO SARIA.**

ZORIONAK irabazleari!!

**Eta besteok animatu, eta erantzuna eman aste
honetako galderari!**

Urcelay
HARATEGIA

**GURE BASERRIAN
HAZITAKO TXAHALAK**

**Etxean egindako txorizo,
saltxitxa, odoloste, e.a.k**

Ibargarai 16, Tfnoa: 76 00 45 / 76 37 77

Zubikua

JANTZIDENDA

Barrenkale 24, Tfnoa: 76 10 57

BERRIGARA

Argitaratzailea:

Jardun Elkarte

Errotalde Jauregia, 20.570
Bergara

Tfnoa eta Faxa: 76 03 97

Babeslea: Bergarako Udala

Laguntzailea:

Eusko Jaurlaritza

Erredakzioa eta maketazioa:

Eneko Azkarate. Eduardo Mendibil

Publizitatea eta harpidetzak:

Aitor Aranzabal, Iñaki Arietaleaniz eta Edurne Arenaza
Tfnoa: 760397

Erredakzio-kontseilua:

Iñaki Eraña, Gorka Elorza eta Alex Labaien

Kolaboratzaileak:

Jose Angel Mikeo, Estepan Plazaola, Miguel Angel Elkorobereziabar, J. M. Elexpuru, J. Oregi, A. Urzelai, Mariipi Laskurain, Ainhoa Lete, Jon A. Bengoa, Mikel Lizarralde, Monika Belastegi, Mikel Elkorobereziabar, Josune Iñarra, Aitziber Aretxaga, Ainhoa Bikuña, I. Sorondo eta Josune Sanjuan

Argazki laborategia:

B. Cantero, M. Leturia, J.A. Eguren, J.I. Millan, J. Aguayo, Jaime Garzia, Dani Santos, Patxi Retolaza, Kifu eta Pol-Pol Mendizale Taldea.

Komikia eta marrazkiak:

Josu Okina eta Antonio Arrillaga

Inprimategia:

Gertu Koop. E. (Zubillaga. Ofiati)

Banaketa: Txantxangorri Taldea

Copyright:
BERRIGARA

Tirada: 3.000 ale

Lego gordailua: SS 50/ 91

ISSN: 1130-6599

BERRIGARA ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanien eta eritzien erantzunkizunik.



IV. San Blas Mus Txapelketa jokatuko da larunbatean, arratsaldeko 4etan auzo horretako jaien barruan. Txapelketa 8 erregetara jokatuko da eta antolatzaileek lehen lau bikoteentzat sariak prestatu dituzte. Izen-ematea hiru terdietan hasiko da, bikote bakoitzak 1.000 pta. ordaindu beharko duelarik.

LARUNBATA 8

- **Saskibaloia:**
 - Bergara-Ordizia (mutil gazteak), 16.00etan.
 - Bergara-Iraurgi (neska gazteak), 16.30etan.

- **Eskubaloia:**
 - Bergara-Oarso (neska gazteak), 18.45etan.

- **Pelota partiduak:**
 - Soroa III-Salbidea/Ansotegi-Mendia, Salaberria-Errasti/Etxaniz-Zezeaga eta Iribarren-Unsain/Telletxea-Buenetxea. Frontoian 16.30etan

- **Kontzertua:**
 - *Ruido de Rabia, Eskombro eta Zensura.* Gaztetxean, 22.00etan.

IGANDEA 9

- **Saskibaloia:**
 - Bergara-Juven (kadete neskak), 10.15etan.
 - Bergara-UPV (senior emakumeak), 12.15etan.
- **Kontzertua:**
 - Udal Musika Banda. Novedadesen, 12.30etan.
- **Futbola:**
 - Bergara-Haizea, Agorrosinen 16.15etan.

FARMAZIAK



- 8 Estella
- 9 Mozos
- 10 Camacho
- 11 Puy
- 12 Guallar
- 13 Estella
- 14 Mozos

ZINEA



Terminator 2

- **OSTIRALA:** 22.30.
- **LARUNBATA:** 17.00, 19.30 ETA 22.30etan.
- **IGANDEA:** 17.00, 19.30 eta 22.15etan.
- **ASTELEHENA:** 19.30.

Sobre la colina negra

- **OSTEGUNA:** 19.30.

OGIA



Mizpildi

BERGARA BOLTSAK


- ✓ Bidaia-boltsak, kirol-boltsak eta bestelakoak egiten dira, narruzkoak, nylonekoak, lonazkoak, etab.
- ✓ Denetarikoko konfekzio industrialak
- ✓ Zuzeneko salmenta publikoa

Santalaitz 1,

Tfnoa: 76 57 69

Faxa: (943) 76 55 66

BERGARA



Kaixo Berrigarako lagunok

Lehenengo eta gauza denen aurretik zorionak eta urte berri on bat opa dizuet Afrikako irla honetatik.

Eskerrikasko Berrigararen aleak bidaltzeagatik, lehen etxekoek sartzen zidaten baina orain pare bat hilabete dela zuzenean jasotzen ditut, beno zuzenean hori esate bat da, Espainiako barne ministeritzako dauden bulego guztiak pasa ondoren, zuzenean nere eskuetara.

Zer esanik ez zuen lanaren premia bazegoela herrian, ea behin betirako euskeraren normalizaziorantz bidea jorratzen dugun, kontuan izanik era askotako faktore sozio-politikoengandik bidegabeko bortizkeriaz zapaldua izan dela, hizkuntza minoritarioen gehiengo bezala normalizazio linguistikoa hau zenbat botere politikoen erreajustetik etorri beharko da, horrela euskerak bere lurralde linguistikoa, bere garaipen osoa lor dezan, eta era berean, guri euskaldun bezala osatu ahal izateko.

Egoeraren larritasuna ikusirik ezin dugu inongo zalantzarik eta ezta inolako zatiketarik gure artean, horrela ba normalizazioa lortzeko komunitate linguistikoa erakunde bizi bat moduan eratu beharko dugu, eta irekia, eta ez partidu politiko baten esparru gaixotia

bezala, hortarako euskeraren garapen osoa lortzeko beharrezko tresnak jarri beharko ditugu, eta hor kokatzen da denon lana. Asko falta arren, normalizazio hori lortzeko eta zein garrantzia duten oraindik burutzeko falta direnak, hots:

euskarazko heziketa sistema oso bat, administralgoaren euskalduntze eraginkor bat, komunitate linguistikoa-
ren defentsa botere politikoen aldetik etabar etabar Pentsatzen dut baikor izan gaitzkeela gehien bat Bergaran zein inguruko herrietan eman dituzuen urrats inportanteak ikusirik.

Besterik gabe eta gehiago luzatu barik animo!!! Ba, segi aurrera eta hortik zihar dabilen batek esaten daben moduan: "Arnasia be euskeraz, kaguen zotz".

Besarkada bat eta ikusi arte.

Panti

Bergarako gasolindegia

Kaixo Berrigarako irakurleok. Goian adierazi bezala gasolindegiko arazo bati buruz mintzatuko naiz aste hone-

tan. Gasolindegian beste gasolindegi guztietan bezala presiozko ur mangera bat dago, mangera hori oso ondo etortzen da menditik bueltatxo bat egin eta bizikletak duen lokatza kentzeko edo beste hainbat erabilpenetarako.

Beste gasolindegi guztietan inongo arazorik gabe uzten dizute bizikleta garbitzen baina Bergarakoan inoiz ez dute bizikleta garbitzen uzten.

Nere ustez horrelako gasolindegi baten bizikleta garbitzen utzi beharko lukete. Zergatik ez duzue bizikleta garbitzen uzten? Ordaindu ezkeru utziko al zenukete?

Asler

OHARRA:

Gutunak sailera bidaltako esku-titzek 20-25 lerro baino gehiago ezin izango dituzte eduki.

Bidaltzailearen izen-abizenak, nahiz eta izenorde batekin publikatu, eta, eduki ezkeru, telefonoa eman beharko dira.



Tiiira ba!



Josu Okina



□ Laguntza

Bergarako *Arans Gui* gorren eskolak Yugoslaviako errepubliketako gorren zentruarekin harreman sendoak mantentzen dituenenez, gerra dela eta hondatuta geratu diren eskolak konpontzeko laguntza ekonomikoa eman nahi dutenentzat buzoi batzuk jarri direla jakin arazten du.

□ Sexologia

Emakumearen Laguntzarako Zerbitzuak sexu informaziorako udal zerbitzua jarri du berriz ere martxan. Astelehen eta asteazkenez, arratsaldeko 4retatik 7etara nahi duenak zerbitzu honetara jo dezake. Emakumearen Zerbitzuak antolatutako *eskulan* eta *yoga* ikastaroaren berri jasotzeko ere Anbulategira deitu dezakezue.

Pol-Polek bere 50. urteurrena ospatuko du aurten

Pol-Pol Mendizale Taldeak aurten betetzen duen bere 50. urteurrena ospatzeko hainbat ospakizun antolatuko ditu urtean zehar. Asteazkenean egindako aurkezpenean, *Andoni Larrañaga* elkarteko presidentek martxorako, besteak beste, diapositiba emanaldiak, konferentziak edota urteroko mendi-zikloko filme emanaldiak prestatu direla azaldu zuen.

Orain dela 50 urteko martxoaren 15ean inaugurazio ofizialeko eguna izan zenez, egun berezi horretan meza izango da eguerdian San Pedron eta, ondoren, bazkaria egingo da.

Bi espedizio

Elkartea bestalde, urte osoan antolatuko duen



egitarauaren barne, espedizio bikoitza prestatzen ari da uda parterako. Lehendabizikoan, *Ion Lazkano* eta *Kike de Pablo* bilbotarrak *Torre del Trangoko* (Pakistan, 6.275 m.) eskalada burutzen ahaleginduko dira. Bigarrenerako, berriz, *Damaso Gallastegi* eta *Luis Ignacio Goenaga*

gehituko zaizkie, *Daulaghiri* (Nepal, 8.177 m.) mendiko gailurra ipar aristatik egiteko asmoz. 5 milioi inguruko aurrekontuarekin, eta Bergarako Udala eta Euskal Herriko Mendi Federazioaren laguntzaz, Pol-Polek bere 50. urteurrenaren berri eman nahi du mundu zabalean.

Santa Ageda bezperan...

Joan den asteartean, *Santa Ageda* bezperan, Bergarako hainbat ikastetxetako ikasleak kalera irten ziren kantuan, diru eske, ohiturari jarraituz. Bestalde, astelehenean ere jende pilo bat bildu zen *San Blas*en opilak bedeinkatzeko asmoz. Astebukaera honetan berriz, larunbatean, arratsaldeko 4retan, IV. San Blas Mus Txapelketa jokatuko da eta igandean, San Blas Txiki egunean, goizeko 11etan meza izango da, gero salda beroa banatu eta, bide batez, dantzari bikoteen saria ikusteko aukera. Bukatzeko, ezkondu eta ezkongabeen arteko soka-tira desafiua.



FANCY

GAZTEEN MODA! Bizkai Etorbidea, 1 Etxabea ARRASATE Tfnoa; 77 14 24

**Euskalduna
Taberna**

OSINTXU

❑ **Kabiak garbitu**
Pol-Poleko *Mendia Bizirik* taldeak kabiak garbitzeko irteera antolatu du larunbat goizerako, hilak 8. Irteera goizeko 9etan izango da Pol-Poletik.

❑ **Jubilatuak**
Bergarako *Jubilatu*en *Egoitzak* Gipuzkoako Diputazioak zein Inersioak pentsionistentzat balneario ezberdinetara joateko antolatu duten programan parte hartzeko izena emateko epea zabaldu dela jakin arazten du. 15 eguneko atsedenaldira hauek martxotik abuztura bitartean egingo dira Zestoa, Arnedillo eta Fiteroko balnearioetan.

❑ **Kontzertua**
Bergarako *Udal Musika Bandak* kontzertua eskeiniko du igandean, hilak 9, eguerdiko 12 t'erdietan Novedades zine-aretoan.



Kale garbiketa

Bergarako Udalak herriko garbiketaz arduratu den enpresa bat kontratatzeko asmoa azaldu du. Dagoeneko *Udaleko Gobernazioa eta Zerbitzuak Batzordeak* horretan diharduten Cespa, Garbile eta Eusko Garbi enpresei herriko garbiketaren azterketa eskatu die. Hortik abiatuta, Udalak honako enpresa baten kontratazioa aztertuko luke, gaur egungo garbiketa ez baita iristen modu egokienean zenbait kale eta auzotara. Gobernazio eta Zerbitzuak Batzor-

deko buru den *Javier Gabilondoren* esanetan, "neurri honen atzean arrazoi ekonomikoak ere badira, garbiketarako dugun makinaria guztiz atzeratuta geratu baita eta kostu haundia suposatzen digu". Udalak orain garbiketaz arduraztzen diren 9 lagun ditu plantilan eta langile horiek, Udalaren kontura, enpresa horretan lan egitera pasatuko liriteke. Enpresen baldintzak eta aurrekontua interesgarriak suertatu ezker, Udalak berehala aterako luke lehiaketa publikora lan kontratazioa.

❑ **Manifestazioa**
Bergarako Herri Batasunak *Bakea* lor daiteke. *Autodeterminazioa*, *Negoiazioa* lemapean larunbatean Bilbon burutuko den manifestazioa joateko autobusa antolatu du. Irteera arratsaldeko 3.30etan izango da Frontoitik.

❑ **Kirol ikastaroak**
Datorren asteartean, hilak 11, *tenis* ikastaro berri bati emango zaio hasiera kiroldegian. Klaseak astearte eta ostegunetan 7.30etatik 8.30etara izango dira. Bestalde, asteazkenean, *igeri* ikastaro berri bat hasiko da. Bi kasutan izena emateko epea ikastaroak hasteko egunaren bezperan itxiko dira.

❑ **UNED**
Zuzenbide Departamentuak antolatutako *dendarientzako jessio ikastaroaren* matrikula epea astezkenerarte, hilak 12, izango da zabalik.

TOKI-EDER
Taberna

Pintxoak eta eguneko bazkariak

Artzamendi, Tfnoa: 76 51 84

KONDE
PANADEROKUA



Burdiñate 1, Tfnoa: 76 02 57

P. MANSO
Optika

OPTIKOA, OPTOMETRISTA

Irizar Ibilbidea 2, Tfnoa: 76 27 86

GOIERRI
Autogidarien eskola


Fraiskozuri Enparantza 5

Tfnoa: 76 41 50

BERGARA

Santo Tomas eta San Juan Bosco

Ikasleek liburuak egun batez ahaztu eta juergagiroan igaro zuten eguna...



Institutoan egindako jaialdian, Zastada taldearen berragerpena ikusteko aukera egon zen...




L.H.E.ko irakasleek boronoarenak egin zuten...



Emakumezkoak futboleant!! L.H.E.ko irakasleak ikasleak baino finago ibili ziren; eskolan eta jolasean maisuak.



Xabier Garitanok mendiko bizikleten txapelketa irabazi zuen. Besteak ez..., besteak egundoko *motorrarekin* egun osoan.



CAMACHO

**DROGERIA
USAINDEGIA**

Bidekurutzeta 24, Tfnoa: 76 13 35
BERGARA

ELKAR

ELEKTRAGINTZA

Mota guztietako
instalazioak

76 00 00 BERGARA

AGIRREBEÑA

**Oinetakoak
Erropa denda
Lenzeria**

Urteaga 5, Tfnoa: 76 18 29

ORTZI

Erretegia

ANGIOZAR Tfnoa: 76 22 68

IBARGUREN PENTSUA

**Biona pentsuen biltegia.
Bioter produktoak eta haziak.**

San Pedro 3, Tfnoa: 76 23 79 BERGARA

San Bizente

Parteittiko auzoak, Angiozar Bailaran, San Bizente ermita dauka. Sarrerako ateburuak "1.580 urtearen zenbakiak ditu bixelatuak, eta lehenago" abizena ere irakurtzen omen zen orain erdi urratuta dau den hizki batzuetan. Dena dela, urte horiek adierazten dutena baino zaharragoko ermita bat izango zen, bertako San Bizenteren irudia XV. garren gizaldikoa denez.

Tripako minarekin zegoena errenazimendu garaikoa den Parteittiko Andremariarengana joaten zen eta, kandela bat eramanaz, errezatu egiten zion sendatu zedila eskatuz. Ermitaren krisilu nagusia habe batek zintzilik dago eta jeitsi liteke eskuetara polea baten bidez.

San Bizente egunean, meza ondoren, auzokoak ermittako eleizpean el-



Ermittan bertan dagoen San Bizenteren irudia XV. mendekoa da.

San Bizente egunean, meza ondoren, auzokoak elizpean elkartzen dira. Apaizak balde haundi batean jarritako ura bedeinkatzen du eta honekin auzoko lurak zirtatzen ditu.

kartzen dira. Apaizak balde haundi batean ipinitako ura bedeinkatzen du eta honekin auzoko lurak zirtatzen ditu. Gero baserritarrak, bedeinkatutako ur hori pitxarretan hartuaz, beren etxeetara eta ganaduaren asketara eramaten dute.

Ermittaren aurrez aurre hondatutako etxe bat dago; esaten dutenez, praille batzuek bizi izan omen ziren bertan, emandako zigorra betetzeko eta penitentzia egiteko. Beste gauza bat ere esaten zuten auzotarrak bere gurasoengandik jasotakoa, ermittaren inguruan kanposantu bat zegoela, alegia. 1.970 garren urtean aurrean dagoen bidea zabaldu eta konpondu nahian hasi ziren eta, gurasoengandik ahoz jasotako esanen arabera, hezurak aurkitu zituzten.

Imanol Sorondo

IZOZKIAK

IZARRHOTZ

IZOZKIAK

Barrenkale 10, Tfnoa: 76 18 22

URKIOLA

Gizon eta
emakumezkoen
moda

Bidekurutzeta 42,

Tfnoa: 76 16 48

BERGARA

Bildu dudan sortatxotik...

Errotari eta ogigileak berriz

Antonio Urzelai


Berrigara astekari honen aurreko zenbaki baten jarri nizkizuen errotari eta ogigin ospetsu baten ipuinak, Kandido, bere izena. Freskura egoki eta ugari zabalduz gero izkutatu zan mundu honetatik.

Oso gazte nintzala, izan nuen berarekin elkarrizketatzeko aukera, adinez bat etortzen ez baginen be. Esan nezake, behin-betiko gogoan gelditu zitzaidala, orduko gai eta jardunaldia urte asko pasa badira ere.

Sasoi hartan, San Antonio auzoan biltzen ginen, jai bazkalostetan, dozena bat inguruko gazte taldea eta, hemendik ateratzen ginen arratsaldeko programa betetzera.

Lehenengo ikuskizuna, Agorrosinen jokatzeko futbol partidua. Inoiz ez genduan sarrerarik ordaintzen. Agorrosin baserriaren atzekaldeko bizkarrian aukeratzen genituen geure egon lekuak. Jaialdia bukatzen zen bezain laster, ttapa-ttapa, Zubieta auzoko "Arando" tabernara jotzen genduan, denok tropelian. Han aurkitzen genduan, Kattalin, etxeoandrea, eta, inolako tratuak edukitzen genituen berarekin!. Ogi zati bana eskatzen genion, hamar zentimo-koak, ardo ttiki bana edo bina edateko. Hala ere, gure ardo egarria baino, ogi gosia askoz biziagoa izaten zan.

"Kattalin, neri hemendik, behatzakin seinalatuz, zati haundi-



a!". Katalin, hain andre ona zen, 9/10 pusketetan banatzen eben hamairu txakurraundi berak ordaindutako bi kiloko ogia. Zerurik bada, Katalin, zalantzarik gabe, han egongo da.

Jaieguneko "paga", amaren eskutik, ondo neurtutakoa izaten zan. Nerea behintzat, gogoratzen naiz, pezeta batekoa zala. Gauean zinerako, 40 zentimo gorde behar ziran; ogi baldo eta bi ardo ttiki, haseran, beste 40 zentimo; gelditzen zenakin gauza gutti egin nezakeen. Zinea, lekurik merkeenetik ikusten genduan, "gallinerotik", alegia. Hala ere, bagenduan gure lagun tartean, oso gazte zala, maite mina sortu zitzaion bat. Hau, bere neskakin "preferentziara" joaten zan, dotore asko. Orduan ere, beti bezala, baziren "maila ezberdinak".

Baina, haria galdu dut. Banoa, osterara ere, Zubieta auzoko "Arando" tabernara. Han elkarrizketatu nintzen Kandidorekin, bertan aurkitzen zelako bere lagunekin.

Hurbildu zan nere albora, eta, honela itz zidan:

- Hi haiz Abrain?
- Bai, bai, -erantzun nion-.
- Oraingo eskola berrian (elementalean) dabilena?
- Bai, berbera.
- Esan jostek listo xamarra haizela.
- Bai zera. Besteekin pillan nabilena.

- Nere semea be hor jabik.
- Bai ezagutzen dut.
- Etxean egitteko eskola lanak ekarten jittuk. Lehenengo urteko-
ei, neuk be, antz emoten najotzen, baina, aurten, lumeruen ordez, (a b) emotejotzek, eta, nik etxuak pittorik be ulertzen.

Kandidok aurkezten eban kezkarik haundiena zera zan:

- Hainbeste zifra jauzak arimetikiak, komeni dian lumero danak eitteko. ¿Esangostak, zertako ipinten dittuen letra horrek?

Erantzun nion, neure modutara, letra bakoitzeko, lumero mordo baten ordez jarri litezkeelako eta seinu gutxikin errazago maniatzeko.

Nire arrazoibide guztiak, etzuten konbentzitu Kandido, eta, haseran "listo xamartzat" baninduen be, aldendu zanian, ez dut uste iritzi horrekin agurtu ninduanik.

Paper pintatuak - Pinturak

A. ZANGITU

Tfnoa: 76 19 54 BERGARA
Tfnoa: 79 91 82 ARRASATE



ETXAGI
Jatetxea

Afariak - Bataioak
Jaunartzeak
Eguneko menua
Gosariak - Bazkariak

Mahasterreka 8, Tfnoa: 76 53 12




Bi sarrera.

Udaletxera sartzeko bi sarrera izango dira: oraingo sarrera nagusia berdin mantenduko da, Simon Arrietaren margoak eta Pleno Aretorako eskilarak dauden moduan utziko direlarik. Bestea, orain Udaltzaingoa dagoen tokian jarriko da. Hiru solairuko etxeak, Udaltzaingoa, Idazkaritza, Diruzaintza, Kirol Zerbitzua (Agorrosin inguruan egingo diren obrak burutu arte udaletxean kokatuko dira) eta konserjea izango ditu beheko pisuan. Bestalde, San Pedro kalera ematen duen irteera *larrialdi irteeratarako* egozkituko da.

Euskaltegia.

The Kensington School of English, Lasa jatetxearen parean zegoen ingeles akademiako hiru pisuak udalak erosi ditu, bertan Euskaltegia jartzeko. Apainketak egin eta hemendik hilabete batera zabalduko ditu ateak. Irizar etxean Euskaltegiak dituen lokalalak, Helduen Heziketa Iraunkorreko eskolak (EPA) hartuko ditu.



Udaletxearen

Apirilean hasiko dira

Udaletxearen berriztapena legealdiko proiektuaren barnean, Aspaldiko asmoak, bi urteko epean gauzatu behar diren bitartean, Udaleko bulegoak Irizar Etxean eta

Iñaki Asplazu arkitektoaren proiektuaren barnean, Ondoko argazkietan erakusten dizkizuegu gutxienez bitartean berriztapenak egin bitartean



Areto Nagusia.

Pleno Aretoan ez da aldaketa handirik egingo baina estradua orain dagoen kontrako aldean jarriko da. Bergarako seme ospetsuen irudiak margoturik dituen sapaia, berriz, txukundu egingo da, 1.978-79an berriztu bazen ere, gaur nahiko hondatuta dago eta. Areto Nagusiaren ondoan, alkatea, idazkaria euskara itzultzailea eta administrariendako gelak jarriko dira. Gobernu Batzordeak bilerak egiteko erabiltzen duen gela, desagertu egingo da eta bere ordez bisitendako egongela eta bileretarako gela bana eraikiko dira.

LAKET

Gizon Emakume
Barrenkale 35 Irala 2
BERGARA

Taberna kafetegia

EHIZTARIAK
LOS CAZADORES

Kafea da gure berezitasuna

Zubleta 26, BERGARA

LARRAÑAGA
eta ZUBIA

Banatzaileak


Errioxako ardoak, olioak,
esnea, lejiak

Martokua 32, tfnoa: 764594

nitxuraldaketa

ko ira berrizte lanak

ko ptekturik garrantzitsuenetarikoa izango da. auzuko dira. Tarte horretan eta obrak dirauten txean eta Aroztegi Etxearen artean banatuko da. lekiak 300 milioitik gorako aurrekontua du. uegi gutxigorabehera emango diren aldaketak eanarbitzu bakoltza non egongo den.



Bulego Teknikoa.

Bigarren pisuan, Pleno Aretoaren gainean, Irizar Etxean dagoen Bulego Teknikoa jarriko da (aparejado-rea...). Honekin batera, Gizarte Zerbitzua eta Euskara Zerbitzua ere bigarren pisuan egongo dira.

Azkenengo solairuan, bestalde, alderdi politikoen-tzako bulego txiki batzuk, enpresa komitearentzako gelatxo bat, igogailuaren makina, berogailuaren kalderak eta biltegi batzuk eraikiko dira. Guzti horien erdian patio txiki bat egingo da, teilaturik gabekoa eta kristalezko paretez inguratua. Bertan lorategi txikiren bat edota estatuaren bat ipiniko litzateke.

Bi urtez udaletxea Irizarren eta Aroztegi etxean

Aroztegi

etxea hartu udalak errentan udaletxeko obrak irauten duten bitarteko. Bertan joango dira alkatearen bulegoa, kontuhartzailatza, idazkaritza eta konserjea. Udaltzainendako, berriz, gela txiki bat eraikiko da



kutzazain automatikoa dagoen tokian: kajeroa kendu eta udaltzainen inspeksioa jarriko da.



Irizar Etxean gainontzekoak.

Irizar Etxean, Kirola, Euskara eta Gizarte Zerbitzua izango dira. Bulego Teknikoak ere, Udaletxearen berriztapen lanak burutu arte, orain dagoen tokian jarraituko du, Irizarren bertan.

Oraindik zehaztu gabe dago obra eta zerbitzuetako brigada non joango den. Gerora Vergaresan egiten ari diren etxeetan joango da.

KIZKUR



**Heapaindegia
Solariuma**

Bolu 51, Tfnoa: 76 50 32

LONBIDE

OINETAKOAK



BIDEKURUTZETA 7,

Tfnoa: 76 10 57

BERGARA

Zubiberri

Sagardotegia

- Eguneko menuak
- Kazuelitak

San Anton Tfnoa: 76 41 06



**ETXE-
-AUNDI**

**Negozio bazkariak
Ezkontzak
Banketeak**

Torre Auzo 9, Tfnoa: 78 19 56
ONATI

FS
oto sistema

**ARGAZKIAK
ORDUBETEAN**

- ✓ Diapositiba errebelatzeak
- ✓ Karneterako argazkiak momentuan.
- ✓ Argazki materialen salmenta eta konponketak.
- ✓ Jaunartze, bataio eta bodetako erreportaiak.

Kruz Gallastegi 2, Tfnoa: 76 00 50



TOSHARE

**ILEAPAINDEGI MISTOA
ESTILISTA.**


Artekale 29, Behea
Tfnoa: 76 29 70
BERGARA

Urtero joaten zara San Blasera ogia bedeinkatzera?



Felisa Txintxurreta
63 urte, etxekoandrea

Aurten aste barruan tokatu delako etorri naiz. Opila eta kandelak bedeinkatzera ekartzen ditut.



Martin Dulanto
36 urte, langilea

Hogei urte dira ez nentorrela. Nik ez dut ospatzen baina etxean ogi bedeinkatua jaten da gaurko egunean.



Blas Ugalde
69 urte, jubilatua

Noizean behin etortzen naiz, kandelak, ogia edo direlakoak bedeinkatzera.




Marisa Fernandez
26 urte, langilea

Ez naiz normalean etortzen, gaur ama eta aizpa ekartzera etorri naiz, eurok ogia bedeinkatzera datoz.

ERROTA - GAIN

Aluminioak



- Aluminiozko leihoak (Isolamendu termikoa) eta PVC.

- Galdaragintza orokorrean

Labegaraieta - Hazkarruntz Auzoa Tfnoa: 76 32 40
BERGARA



**Baserriak
erosterakoan**

Orain dela zenbait egun bete dira hamaika urte maiztertzari buruzko legea ("Ley de arrendamientos rústicos" delakoa) onartu zela.

Urte hauetan eta aipaturiko legearen arabera baserri lanean ari diren errentari edo maizterrek eskubidea izan dute betidanik erabili dituzten lurralde eta baserriak erosteko.

Baserri munduarentzat egun hauetxek kezka eta zalantza haundikoak izan dira, zeren eta hil honetan, otsailean, erosketak burutzea posible egin duen epea bukatzen den.

Denok dakigu baserriaren etorkizuna ez dela alderdi honetara bakarrik mugatzen, baina jabetza eskuratzea oinarritzotzat kontsidera dezakegu beste helburuak gorpuztu ahal izateko.

Maizterrak erabiltzen duen baserria erosi nahi izatea bidezkoa izateaz kanpo legalki babestua izan da.

Egoera honetan derrigorrezkoa suertatu da aipaturiko aukera aprobetxatzea. Ezjakintasuna, beldurra, diru falta... medio, ez dute baserriar guztiek bide berririk urratzen asmatu.

Dena den eta ikusirik helburuak neurri batean bete gabe jarraitzen duela, beste aukera berri bat izango dela azpimarratzea komenigarria deritzat; konkretuki, beste bost urte gehiago izango dira.

Ea oraingoan ez den inor kanpoan gelditzen.

Xabin Zabaleta



**Irrati
Formula**

Goizetan irratia izaten dut iratzargailu. Ordu horretan nahikoa lan izaten dut begiak irekitzen eta entzuten erraza, atsegina eta arina den zerbait eskatzen dute nere belarriek: irradi formula.

Irrati formula da dialean erabat nagusitzen ari den irratigintza. Musika da irradi honetan jaun eta jabe. Bada aurkezle bat baina kantuak aurkeztu besterik ez du egiten. Nazioarteko berri edo partiduen emaitzak entzuten aspertuta gaudenean, edozer gauza egiten ari garela entzuteko aproposa da.

Euskalerrian ere bada euskerazko irati formularik, berria izanagatik harrera ezin hobea izan duena. Euskadi Gazteak esaterako, bi urte eskasean 70.000 entzule baino gehiago lortu ditu. Datua zenbaki hutsean gera ez dadin eta aipatutako arrakasta egia dela ikus dezazun beste datu bat baino ez: Euskadi Irratiak 10 urte bete behar eta 110.000ren bat entzule ditu.

Bukatzeko, galdera bat: hainbeste kritika jasotzen duen irradi hau nor ez du egunean behin ez bada noizean behin entzuten

Jone Larrañaga

**TABERNA
ZAHARRA**

Jatetxea

**Bazkariak
eta
afariak**

**Tfnoa 76 21 21
ANGIOZAR**

BOLINTXO

*Kirola egiteko
behar den guztia*

Ibargaral 10,
Tfnoa: 76 38 32

IRUBIDE

Taberna

**Bazkariak, gosariak,
afariak, etab.**

Urteaga 9, Tfnoa: 76 25 67

**AGENTZIA:
J. ELKORO**

Ibargaral 2, behea
Tfnoa: 76 57 85
BERGARA

VITA

CAUDAL

ZURICH



UNIBER

HISPANA

ZURICH TALDEA ASEGURUAK

Beheko Taberna

Menestra eta konejoa dira gure berezitasunak

ANGIOZAR Tfnoa: 76 55 74

EDEL tapizdenda

Etixerako artikuluetan aukerarik haundiena eskaintzen dizugu:

Alfonbrak, kortinak, kortinoiak, koltxak, edredoiak, etab.

Zure bulegoetan giro atsegina behar baduzu, ez ahaztu pertsiara-motarik egokienaren berri eskatzea.

Bidekurutzeta 14, BERGARA

ANDYZY

**ERAIKUNTZA
MATERIALEN
BILTEGIA**

Azulejo erakusketa • Onduline
P.V.C. • Blokeak • Pinturak

TELLERIKO LANA Pol/Ind. San Juan

C 1 B Pab. Tfnoa 76 01 41

Faxa 76 00 58 BERGARA

Hagin klinika

Idoia Iriarte Irureta

Artekale 1, 1. C. Tfnoa: 76 01 65

SURPE Taberna

Erdiko Plaza, Tfnoa: 76 64 97
ANTZUOLA



BERGARA

Tfnoa: 76 25 99

Iturkinek bere eguna ospatu

Herriko iturkinek ere bere eguna dute markaturik egutegian eta, urtero bezala, joan den larunbatean bazkaltzeko bildu zitzaizkigun. Guztira 35 lagun inguru izan ziren, laneko tresnak utzi eta, lagunartean, ondo jan eta berriketari ekin ziotenak Zumelaga jatetxean. Horrez gain, abenduaren 14ean 65 urte bete eta orain gutxi jubilatuta den **Rafael Wangeneverri** omenalditxo bat eskeini zioten bere *gremioko* lagunek. Rafael gure herriko lehenetariko *hojalateroa* izan dugu eta bere lankideek plaka bat entregatu zioten oroigarri gisa. ZORIONAK beraz herriko iturkinel eta bereziki erretiratu berri zaigun Rafael Wangeneverri. Ospakizun berri bat izan bitartean, ondo bizi eta ez dadila lanik falta!!



Kotxe salduena

Udalak emandako datuen arabera, joan den urtean 457 kotxe saldu ziren gure herrian. Anekdotak gisa, 90eko datuekin konparaturik, kotxe bat gehiago bakarrik saldu da eta, modelu ezberdinei dagokienez, berriz ere herritarrek **Opel Kadetta** izan dute gustokoena; modelu honen 36 kotxe saldu dira guztira eta, beraz, Kadetta izan dugu salmentetako *lider*, bigarren **Ford Fiesta** 25 kotxerekin eta hirugarren berriz, Renault etxearen azkenetako modelo, **Clio**, 20 kotxerekin. Guztiek, industriaren krisia dela eta, nekez izango dute 92an marka horrek hobetzea.




□ **Karnabalak**

Argazkian duzuen hori izango da aurtengo herriko karnabaletarako kartela. **Daniel Laskurain** bergarar margolari gazteak irabazi du **Kultura, Jalak eta Gazteria Batzordeak** konbokaturiko kartel lehiaketa, epaimahaiak bere lana hautatu baitzuen aurkeztutako 31 kartelen artean. Beraz, berak egindako kartelak iragarriko digu karnabalen etorrera eta, bide batez, Danik 50.000 pta.ko saria eskuratuko du.




Zertan dihardute ba?

ITSASO AZKARATE



29 urteko bergarar akteresa honek *Trapu Zaharra* antzerki taldeak prestatu eta gaur ostirala, hilak 7, Tolosan estreinatzen den "Oido cocina" antzeslanean parte hartzen du.

MARIAREN LAGUNDIA



Gutxitu Sikikoen Hezitzaile ikasketak egiten ari diren 3. mailako lau ikaslek, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak antolatutako *Elkarrekin* izeneko integrazioari buruzko lehiaketa irabazi dute.

YAZKI
UME **GAZTE**
 Neska eta Mutil
 Irizar 3 Ibargaral 8
 Tfnoa: 76 16 54 Tfnoa: 76 54 73

JUAN MARI IRIZAR
Hagin klinika, aho sendagilea.
Helbide berria hau da:
Boni Laskurain 4, behea. Tfnoa 76 56 57

Izkirimiriak

Ez ziran asarre Mondrauko kinttuok ofizina illun, arpegi illunagoz betetako aretatik irten eta Donostiako kaleetako argitara jalgi ziranean. Algara ta ulu, lorian zebiltzalarik, urreratzen zaien erri-zai bat eta begitarte illun xamarrez oar batzuk egiten dizkio ixiltxoago ibiltzeko aginduaz. Ez ziran ertzaiñaren jardunaz asko estutu mutilok eta ixillik ontzun baziofen ere, arek bukatu-ala erantzuten diote zorrotz eta "artzekoekin..." "baiña gu kinttuak gara!...gañera mondrautarrak!..."

Arratsaldea, trenera birtarte, Paseo Nuevon eman zuten eta ez zien iñortxok oarrik egin ez ezertxo esan. Egia da, bai, eurak beste iñortxo ez zebillela alderdi aretan. Obeto esan, iru lagun agiri ziran, jaun bat eta bi emakume, baiña ala urrin batera...

Denbora eman bear eta jolas batzuen ondoren bururaten zaio Txikiñi "deabrukeritxo" bat. Asmo txarrik gabe ta lagunei barre eragite aldera egiña izan bait zan, kontakizun dala deritzat: orra ba. Zelako Txiki demonientroak nunbait bere diruak urri-xamartuak zituen eta bururatu ez zaio ba bere arima salgai jartzea?. lauzi zailu batez (salto batez) igotzen da orma gañera ta

itxasora begira besoak zabalik asten da uluka... "Jauna! ekatzuz amar duro ta nire arimia zuretako izango da!"... "itxoin pixkat eta iñor agiri ez zenean bederatziduroan jarria zuen eta azkenik zortian bere arimaren prezioa. Artean nobedaderik ez itsas-aldetik eta ekiten dio gero... "diabrua!... ekazak amar duro ta nire arimia euretako izangok!..." Baiña nunbait Txikiren armiak estimazio gutxitxo zeukan beste munduan eta iñork kasorik ere ez...

Orduan bere lagunak beti jolas-giroan esaten dio... "Txiki...ipiñiok zortzixen!... Baiña Txikik bira eman eta esaten die serixo-serixo... "Ez!, Jaungoikoari zortzixen bai, baiña diabruari amarretki, bera ez!."

Poliki-poliki urreratu ziran mundrautarrok len urrin batera ikusitako iru andre-gizonengana ta auek ere mundrautarrak;

Mundrauko aundikitako jaun dotore bat bere emazte ta beste emakume batekin, biak oso apañak... Ikusi orduko esaten dio jaun aundiaki... "Zueik zintzen?... Ara! urriñera esan jutsiet onei... orreik mundrautarrak ditun!... ta bai igarri bel..."

Txomin Amasorrain

Antzinako kontuak

Erenazimenduko pintura Bergaran

Erenazimenduan Bergarak ezagutu zuen iharduera artistiko zabalean (obrak eginez, sustatuz edo inportatuz) pinturak bere lekua izan zuen; hala ere, eta Euskal Herri osoan gertatzen den bezala, gugana iritsi diren obrak oso urriak dira.

Alde batera uzten baditugu Iruña inguruko tailerrak, Erriberan egindako lanak, Aragoiko eskolan integratuak ia, edota Araban zehar sakabanaturiko zenbait obra, lokal mailako tailerrek ez zuten eragin nabarmenik izan eta bertako pintorek egindako lanaz ez da ia batere aztarnarik gelditzen; obrak kanpotik ekartzeko erraztasunak eta parrokietatik iristen diren enkargu urriak eragingarri izan dira neurri batean ihardura honek indar gutxi izan dezan.

Beharbada horrek interesgarriagoa egiten du Bergarako iharduera piktorikoaz jabetzea; 1.582an Santa Marinako parrokiak eskritura bat sinatu zuen Mutrikuko bizilagunak ziren Joan de Breville eta Gracián de Riverarekin batetik, eta Pablo de Urrutia arrasatearrarekin bestetik, kapitela, giltzarriak

eta zenbait paramentu pintore hauek pintatu eta urrezta zitzaizen. Obra hau 1.585ean aztertu zenean, Brevilleren hormako pintura aipatzen da xehetasunak emanez, eta horrela, San Joan eta Ama Birjinaren irudiak agertzen direla eta beren leienda gordinak aldare nagusiaren horman ikusgai daudela adierazten du. Irudi horiek, tailan landutako Kristo Gurutziltatu bat enmarkatuko zutenak seguraski, desagertuak zeuden jadanik erretaula jartzeko orma zati bat XVIII. mendean bota baino lehen.


Hemengo maisuek egindako pinturez gain, hor daude, inportatuak izan ziren obra ugariak. Marina de Zavala y Ondartza andreak, esaterako, idatzia utzi zuen 1.603ko testamentuan bere senarrak pinturak eta bestelako gauzak erruz ekarri zituela Flandesetik, eta ondasunen inbentarioetan ere irakurtzen da bazirela gai ezberdinetako koadroak, erretratu franko eta baita El Grekok pinturiko San Jeronimo bat.

M.J. Aranburu eta Jesus G. Massa

ARREGI

Eraikuntza materialeak

Biltegia Tellerlan, Tfnoa: 76 27 93
Labegaraita Auzoa



ETXEBERRIA

ERLOJUTEGIA - BITXITEGIA

Bidekurutzeta 16, Tfnoa: 76 23 94- 76 12 65
BERGARA

JUBILATUEN TABERNA

• Bazkari eta afariak

Tfnoa: 76 62 71 ANTZUOLA



BARRENKALE 4 Tfnoa: 76 18 14

ZUNBELTZ

Kafetegia

S. Arrieta Enparantza
BERGARA




Igartua, 31.

Iñigo Igartuak ez zituen larunbatean Leedsen korritutako Munduko Ziklo-kross Txapelketan berarengan jarrita zeuden itxaropenak egi bihurtu eta 31. postuan helmugaratu zen. Inglaterratik bueltan, zera adierazi zigun Iñigok: "Triste nago egindako mundialarekin. Larunbatean ez nuen karrera onik egin eta lehen momentutik txarto sentitu nintzen, hankak blokeatuta izango banitu bezala". Hala ere, txirrindulari bergararrak balorazio positiboa egiten du aurtengo denboraldiaz. "Egun bateko karreran hori gerta daiteke, egun txarra eduki eta ezer ere ez lortzea. Bestela, denboraldian zehar lortutakoak pozik nago". Igandean, Harnesen, (Frantzia) Superprestijioako azken proba korrituko du.

Jose Mari Zezeaga

"Eurak dira faboritoak"

Bi partidu, garaipen bana. Hurrengo astebukaeran Iruñeako Labriten berriro izango dira aurrez aurre Unanue eta Zezeaga uberra alde batetik eta, Retegi II.a eta Maiz II.a bestetik. Garaileak, binakako pelota txapelketaren finalera pasatuko dira.



kostatzen zait gustora jokatzea, nerbioengatik edo..

- Eta zein izango da partidu horretako klabea?

- Niretzat berak dira faborito, beraz guk oso ondo jokatu eta beraiek aurrean edo atzean kale egitea komeniko litzateke. Hori izango da Maiz eta Retegi gainditzeko modu bakarra, bietako batek egun txarra izatea. Guk, berriz, topera jokatu behar dugu, akatsik gabe.

- Bi partidu guztiz diferenteak jokatu dituzue orain arte.

- Lehenengo partidua eurak oso ondo eta guk ostera nahiko txarto jokatu genuela uste dut, ez ziguten gure jokua egiten utzi. Nerbioek ere asko influitzen dute. Bigarreneko berriz, galtzeko mentalizatuta joan ginez, askoz lasaiago jokatu genuen. Retegik ere lesionatu eta nahiko fastidiatuta jokatu zuen...

- Hirugarren partidua jokatzeko dena aurrez zegoela ere entzun da.

- Neregatik ez behintzat, oso zaila da eta konfiantza asko izan beharra dago norberarengan. Ez dut uste halakorik eman

denik.

- Sistemarik onena al da aurtengoa?

- Joan zen urtean finala hiru partidutara jokatu zen eta finalik ez zen egon. Finala egun haundia izaten da pelotan eta partidu batetara izan behar da beti. Aurtengoa iazkoa baino sistema hobea dela uste dut; nahiz eta egun baten kale egin, errekuperatzeko aukera daukazu eta nire ustez ondo dago hori.

- Zein frontoitan jokatzeko duzu gustorago?

- Nere ustez pelotari gehientzat Tolosako Beotibar da jokatzeko frontoirik onena. Bergarakoan berriz, gehiago


- Bukatzeko, zergatik esan diozu ezetz manomanistari?

- Esan nien ea posible zen txapelketa hasi baino bi aste lehenago izena ematea eta ezinezkoa zenez, ezetza eman nien, ez dakit nola egongo naizen hemendik bi hilabetera. Binakakoarekin konparatuz oso diferentea da eta ez daukat gogo haundirik konpetitzen hasiteko. Bergaran gaizki jokatzeko ere bultzatu... Gainera ez dakit manomanok jokatzeko, aurten ekin nion entrenatzeari baina berriro laga dut, ez daukat ilusiñorik.

**Aldoka
Maldoka**

TABERNA

Kruz Gallastegi, BERGARA



JAUJA KIROLAK
Irizar 2, Tfnoa: 76 14 95

**BERGARA
Karrozeria**

Txapa - Pintura

Tfnoa: 76 12 31



Zubiaurreko lagun-kuadrila

Urbano txoferraren deskapotablea zen garai batean bergararren ibilgailu ofiziala. Makinatxo bat herritarrek aterako zuten bertan argazkia. 1930-32 aldeko argazki honetan Zubiaurreko lagun-kuadrila agertzen zaigu.

Bertan agertzen direnak:

Atzean eta hegalean jarrita: Ignazio San Jose, Urbano Calvo, Luziano Garitano, Bizente Irizar, Felix Durana, Luis Bikuña, Fernando Agirre eta Fermin Agirre.

Atzeko jarlekuan: Andres Agirre, Juan Bikuña, Serapio Arregi eta Simon Fernandez.

Erdiko jarlekuan: Ricardo Villar, Martin Zabaleta, Agustin Bengoa eta Juan Fernandez.

Aurreko jarlekuan: Bizente Garitano, Martin Guridi eta Eustakio Urzelai.

*Estepan Plazaola
Argazkia: Palomero taberna*



**ETXEPARE - BILINTX
LIBUBUDENDA**

Liburuak eta diskoak

Ibargarai 12, Tfnoa: 76 40 50 BERGARA



ETXEBIZITZA

Garajea salgai
☎ 76 39 11.

Pisua salgai Koldo Eleizalde 20an. ☎ 76 42 52 (gaueko 8etatik aurrera).

Pisua salgai Koldo Eleizalden.
☎ 76 37 61 (arratsaldez).

Antzuolan Pisua erosi-ko nuke. ☎ 76 62 36.

Pisua salgai Dr. Fleming kalean. ☎ 76 04 15 (iluntzeko 8etatik 10etara bitartean).

Etxebizitza salgai San Lorentzo 25ean.
☎ 76 31 35.

Pisu txiki edo buhardila bat hartuko nuke alokairuan. ☎ 76 32 70.

Pisua alokairuan hartu nahi dut. Beste lagun batzuekin ere konpartituko nuke. ☎ 76 55 09.

SALDU-EROSI

PENTAX ME Super, TAMRON 28-70 mm-ko objetibodun argazki makina salgai. METZ 20B3 flasha, funda, poltsa eta guzti. **Manuaia eta automatikoa.** Berri-berria.
☎ 76 56 90 / 80 15 38.

Fondoko hiru eski pare salgai, egoera onean eta merke. Bata 6-8 urteko batentzat, bestea 8-10ekoarentzat eta bestea nagusi batentzat.
☎ 76 32 69.

9 bandadun AKAI EA-A1 ekualizadorea eta AKAI AP-X1 tokadisko erdiautomatikoa salgai.
☎ 76 56 90 / 80 15 38.

Trabeslako eskiak salgai: 1.85 metrokoak. Berri-berriak. ☎ 76 22 50.

Collie txakur-kumak salgai. ☎ 76 64 83. (17.30etatik aurrera).

Musika jotzeko bateria salgai. Egoera onean. Prezioa eztabaidatu daiteke. ☎ 76 53 55.

Neskentzako bizikleta salduko nuke. *BH bolero rosa* modeloa. 7tik 11ra urtekoentzako modukoa. Otarre eta guzti.
☎ 76 13 14.

SPECTRUM+2 bat salgai. 128 K eta 20 bat joku. 2 Joystick. 15.000 pezeta.
☎ 76 21 35.

Amstrad ordenadorea salgai, kolorezko monitorrea, 3 pulgadako disketera, 30 joku. 35.000 pezeta. ☎ 76 25 12.

Kanping denda, karro eta guzti, salgai. ☎ 76 58 93 (Miren).

LANA

50 urtetik gorako emakumea behar da andre edadetu bati laguntzeko.
☎ 76 51 62.

Arratsaldez lana egingo nuke etxeko lanak egiten edo umeak zaintzen.
☎ 76 54 82.

Emakumezko euskalduna behar da haurrak zaintzeko. ☎ 76 02 57.

Neska euskaldun bat behar dut etxeko lanak egiteko eta haur bat zaintzeko. ☎ 76 12 53.

Emakumezko euskaldun batek etxeetan interina lan egingo luke.
☎ 76 21 33.

Hildakoak

Julio Zabaleta Olabarria

otsailaren 1ean, 72 urte

Ramona Aranguren Urkiola

otsailaren 3an, 83 urte

Javier Markiegi Loiti

otsailaren 4an, 55 urte

Mikel Bolinaga Alegria

otsailaren 4an, 33 urte

Martina Mujika Barrenetxea

otsailaren 5ean, 77 urte

Jaiotakoak

Anartz Garcia Urkiola

otsailaren 1ean

AUTOPULLMANS ARABA
Autobusak

Eskurtsioak eta bidaiak edozein tokitara

ANGIOZAR Tfnoa: 76 55 70

ONENA
TINDATEGIA


Barrenkale 29, BERGARA

HALTZARI

FAGOR ALTZARIEN BANATZAILE BAKARRA

Harane Erreka 4
Tfnoa: (943) 76 30 57

BERGARA
(Gipuzkoa)



SUKALDERAKO ALTZARIAK



**6 URTEKO
GARANTIA**



**TEMPRA
STADIO**

1.535.000 pzta
Matrikulatuta

ERAKUSKETA:
Ibargarai 39
BERGARA

TAILERRAK:
Antigua Auzoa
ANTZUOLA

Autoberezi FIAT

ZERBITZU OFIZIALA